

# Parc Güell

Beñat Sarasola

Idazlea / Escriptor / Escritor

Garai batean ameskeria hutsak iruditzen zitzaizkionak aukera erreal bihurtu zituen «une historiko berriak». Halaxe deitzen zioten medioek: une historiko berria edo estatus politiko berria edo nor bere buruaren jabe izatea. Garai ez oso urrun batean itzulinguru gabe independentzia esango zitzaion hori alegia. Iñaki Abaituak Coll del Portell abenidatik egiten zuen aurrera pauso laburrean, eskuineko eskua poltsikotik hur, aldika lokietatik jaisten zitzaizkion izerdi tantak musuzapiarekin lehortzeko pronto. Egoera berrian gauza originalak egiten ibili nahia izango zen, pentsatu zuen Abaituak, baina, egiazki, txundituta utzi zuen unibertsitatetik jasotako proposamenak. Txundituta jada katedratiko emeritu izaki, han berarekin inor gutxi akordatuko zela uste zuelako —eta hala zen izan, murrizketak aitzaki despatxua kendu ondoren fakultatea zapaldu ere egiten ez zuenetik—, are gutxiago aurrekontu hain handiko proiektu baterako. Txundituta, halaber, Institut Catalak proiektuan parte hartzen zuelako, zer eta euskarazko hiztegi bat egiteko. Egia zen aspaldi batez gisako egitasmu bat eduki zuela Institutarekin, baina Trantsizio osteko garaiak ziren horiek, dirua nahieran banatzen zen garaia, pujolismoaren garai loriatsuak. Nolanahi den, txundigarriena proposamenaren xelebra zen ezbairik gabe. Egungo euskararen hiztegi berri bat nahi zuten, baina alfabetoaren legeei men egingo ez ziona; hots, hitzak ohiko ordenaz joango ez zirenak baizik eta hiztegiaren irizpide, gogo, apeta edo dena delakoaren arabera. Eta nori eta berari proposatu, alfabetoaren jarraitzaile ez ezik aldarrikatzaile sutsuari. «Hitzen arteko sare berri bat nahi dugu» esan zion bileran batean pastazko betaurrekodun gazte batek, hogeita bost urterekin jada doktore zen tipo brillante bat, agidanez eta ondoren jakin zuenez, Massachusettsen eta Berkeleyen ikertzen jardundakoa. Klon bat, alegia, pentsatu zuen Abaituak, ondorengo luntxean gazteari itzuri egiten ahalegintzen zen bitartean. «Hau da» gaineratu zuen gazteak «sare» kontzeptua garbi geratu izan ez balitz bezala, «egitura rizomatikodun hiztegi bat». Abaitua proiektua zuzentzea onartu izana damutzen hasi zen, gazteak «rizomatikodun» ebaki zuen istant berean.

Sapa harekin aldapa bi aldiz zen malkar eta jendearen jenio txarra bi aldiz malaletxe. Auto ilara begiztatu zuen muinotxoaren goialdean, autobus bat bihurgunean aurrera egin ezinean zebilen errepide bazterreko auto aparkatuak oztupo. Klaxon hotsa, purrustadak «on vas, burro», «sempre el mateix amb aquets». Harridura eta sustoaren arteko aieruz begiratzen zuten autobus

barnekoek kanpoaldera, ibilgailuak behin eta berriz aurrera-atzera egin bitartean, pendiza kari motorra itotzeko zorian. Ez zen autobusekoen oso bes-telakoa Abaituaren aldartea, nahiz eta eskarmentuak eman larruaren gogorrak gizon seguru, gizon arrakalgabe baten irudia ematen zion. Arauari men egitea beti da errazagoa haren gaberik ibiltzea baino, eta hala, galdurik sentitzen zen, delako hiztegia nola arraio taxutuko zuen arrastorik ez zuela. Doktore gazte idiota haren hitz jariora gorabehera, garbi zegoen zein zen bere egitekoa: ordinarik gabeko hiztegi bat osatzea. Lanak eduki izan zituen maiz beste hiztegi batzuk egiten ari zela: hitz arrotz bat, edo azken boladan sarritan idatzia ikusi hitz berri bat, edo beste baten adiera zaharkitua, edo hitzen esanahia argitu nahian osatu esaldi egokiak asmatu beharra. Ordukoa, baina, zailtasun berri bat zen, eta gainerakoei aurre egiten gutxi-asko asmatzen bazuen ere, besterik zen ordena gabeko hiztegi bat egitearena. Nola ipini hitzak? Ze segida eman? Umetako jolas haietan nola, beste hiztegiaren bat hartu, orrialde bat ausaz ireki eta hitzak seinalatzen hasi begiak itxita? Buruz bestela? Baina buruz aritze horrek ez ote zuen logika gibeletorik? Hitz bat beste batekin lotu, ume garaiko akordu batek beste batera eraman... Alfabetoa alde batera lagata, bururatzen zitzaizkion hitzak emateko forma «alternatibo» guztiek zuten, finean, ordena ezkuturen bat, metodo gisakoren bat, eta honenbestez, egitasmoaren asmo originalari iruzur egingo ziola iruditzen zitzaion.

Bezperan egon zen Institut Catalakoekin batzartuta Carme kaleko bulegoetan. Ez zuen behialako garaietako inor ezagutu. Belaunaldi berri bat zen orain, antza, Kataluniaren gidari. Denak ziren bera baino gazteago; nola ere baitzen, Guardiolaren tankera hartzen zien gehienei. Ondo jantziak, intelektual gisa mintzo ziren, erabakitasunez, eta esaten zuten oro baldintza gabe sinesten zutela zirudien, harrigarriro. Hala ere, ez zuten batere estutu. Beharrik, ez zuen eta jakingo oso ondo nola erantzun, egitasmoa inori saltzeko ezgai izateaz aparte kontuari tamaina hartu gabea zelako. Hobe zatekeen doktore gaztea bidali izan balu hara bere txorrada kolekzioa botatzera, pentsatu zuen Institutera sartu baino lehenago Caravelle-n eskatutako kafe amerikanoa edan bitartean. Zorionez, baina, proiektuaren izaeraz ez zuten interesik batere. Tramite kontu batzuk lotu, hainbat orri izenpetu eta kito. Donostia 2016koekin hitz egin behar zutela, bi erakundeak izaki hiztegiaren babesle nagusiak. «Elkarlan formula berriak sustatu behar ziren» orain esaten den moduan, pentsatu zuen Abaituak, «finantziario partekatua» eta halakoak. Independentziaz gero Kataluniako gobernuaren eta Eusko Jaurlaritzaren elkarlana ugaritu egin zela, batez ere kultura sailen artekoa. Ba ondo. «Pozten naiz» bota zien konbentzimendu handirik gabe. Bostekoa eman, «fins la propera» eta abar, katalanen ohiko kortesia hotz hori.

Sant Josep de la Muntanyan ikusi zituen jada saldoak gorantz, pausarik gabe ilara modukoetan. Horiek bai ordenan, pentsatu zuen Abaituak. Jendetzaz aparte igotzen ahalegindu zen baina ez zen erraza asuntua. Ez zegoen kezatzeko, haatik. Ongi zekien jendetza ibiliko zela parkean zein inguruetan. Gauza ezaguna zen urte batzuk geroztik leku hori edozer gauza zela garai ba-

teko leku eder baketsua baino. Guztiarekin, baina, hara joatea deliberatu zuen hiztegia zela-eta murgilduta zegoen kakanastea soluzionatu nahian. Izango zen akaso uste zuelako aspaldi handian han igarotako uneak akorduan inspirazioa etorriko zitzaiola, edo, maila inkontziente batean —J.J. Lasak esango zukeen eran—, masa zalapartari eta deseroso haren ondorioz ezer onik atera ez eta, ernegatuta, egitasmoari uko egiteko aski indar biltzea espero zuelako. Gazte doktoratuak har zezala mugiroa, rizoma eta guzti. Egiazki, Güell parkea gehiago zen beretzat iraganeko maitemin baten gogoratzea lan kontuak ebazteko toki bainoago. Inoiz ez zuen iraganean parkea baliatu pasieraren patxada lagun konpondu-gaitzen inguruan hausnartzeko. Idazle ugarik esandako hori: paseatzeak gogoia aktibatu eta ideiak sorrarazten dizkiela alegia, eta ostean lerroak idazten zituztela jario betean. Ez zen Abaituaren kasua, zeinak arazoak konpontzeko seta erabiltzen zuen, buruaren gogorra, ordenagailuaren aurrean tinko beti, eta ez haizearen freskoa. Bazuen parkeak Abaituaren temarako joera eta jaidura metodologikoarekin lotura zeharkakorik ordea. Han jaso zituen, hamarkada zenbait lehenago, Susanaren ahotik, liburu haren lehen lerro bihurtuko zirenak: «Egin aurretik mugimendu bakoitza entseiatzen duk buruan, egiteko gauza izango haizela ziurtatzeko». Abaituaren zuhurtzia eta ordenaren erakusgarri behinena zen esaldia, baiki, orain agidanean aparte utzi behar zuen zuhurtzia eta ordena berarena.

Urte mordoa zen hara joaten ez zena. Bartzelona utzi zuenetik tarteka baino ez zion egiten bisita Coll de Portelleko etxeari, eta urteek aurrera egin ahala are eta gutxiago. Geroz eta nekezagoa egiten zitzaion Bartzelonan utzitako bizitza harekin lotzea. Hango lekuak, orduko adiskideak, ez ziren leku eta adiskide berberak gehiago. Eta Abaitua bera ere, pentsatzen zuen bere baitarako, ez zen gutxi aldatu. Urteek eman ohi duten petraletik ere jaso zuen bere izaerak, baina behiala gobernatzen zuen xalotasuna berdintzeko balio izan zion. Zahartzaroak —ez zen denbora asko hitz hori erabiltzea onartu zionetik bere buruari—, ezaxolatasuna areagotu zion lotsagabekeria gisako batekin batera. «Berdin-berdin gauza bat edo bestea egin, bada, egin dezadan gogoak ematen didana» esaten zuen bere baitarako maiz. Garai batean doktore gaztea konprenitzen eta are harengandik ikasten ahaleginduko zen seguru asko; egun, bere kezka nagusia zen nola bidali morroi gogaikarri hura pikutara.

Lekua turistez mukurua bazen ere ez zitzaion nekeza egin parkearen bazter batzuk bere gogoan identifikatzea. Eskalinata, sarreraren goialdean dagoen begiratokia, mosaiko koloredunak —nola ez—, sozialista hura alkate zela Donostian ere ugaritu zirenak, zutabe-labirinto moduko hori... Ez zuen presarik, eta bazter ugaritan begiratu zuen ea parkeko zatiren batean lasaitasun pixka bat lor zitekeen, baina luze gabe jabetu zen sarrerako eromenera ailegatzen ez bazen ere, parkearen luze-zabal guztian zela antzera. Jendea saihestu ez ezik argazkilari saldoen eremu-optiko ugariak ekidin beharra ezin gogaikarriagoa zen eta, azkenez, banku kizkur tipiko batean esertzea deliberatu zuen. Han ere jendea besterik ez zen, baina gutxienez, banku aski lu-

zeak izaki, espazio pixka bat har zitekeen bata eta bestearen artean. Horietako banku batean behar zuen izan, esan zion Abaituak bere buruari, Susanak esaldi hura bota zionekoa. Atzerantz lerratu zuen gorputza, belaunak bularralderantz eraman eta besoekin inguratzen zituela; irribarre batez jaulki zion hasieran esaldi arrunta iruditu baina denborarekin aski esanguratsua egin zitzaion hura: «Egin aurretik mugimendu bakoitza entseiatzen duk buruan, egiteko gauza izango haizela ziurtatzeko». Eta hala ere ez duk taxuz egiten, gehituko zukeen. Ez zuen gerizperik lortu, bakanak zituen banku luzeak, baina tarte batez behinik behin sosegurik lor zezakeen aproba egitea pentsatu zuen. Sargori zen, bizkarraldean izerdi tantak sentitzen zituen larruazalean behera. Mediterraneoko sapa Kantabrikokoa baino koska bat sapagoa zen, han ez zen Donostian maizenik lagungarri izaten zen brisarik.

Bere ingeniari estiloko ordena zaletasunari jarraiki, hasieratik hasia izango zela onena erabaki zuen. Gezurra badirudi ere, ez da beti metodorik ziurrena hasieratik haste hori, pentsatu zuen; are bere printzipioen kontra, eskarmentuak irakatsi zion hasieratik hasten ez diren hastapenak izaten direla bikainenak ez gutxitan. Ziurgabetasun artean, baina, hobe esperimenterik ez egin, hori ere bazekien jakin. Hala, inondik hastekotan hiztegiaren lehen hitza erabakitzetik hasia litzatekeela zuhurrena pentsatu zuen. Jakina, hiztegiko lehen hitza nahieran hautatzeko aukera izanik, ezin ausaz hartutako nolanhiko bat aukeratu, demagun, «ordenagailu», «kuartzo», «saretu», «pareta», «baina»... Luze gabe ohartu zen, ordea, ezin hitz aukeratuta ere, lehena ipinita esanahi berezia hartzen zuela; baita hitzik zozoena ere esanguratsu bilakatzen zen bat-batean. «Ordenagailu»k, esate batera, hiztegin-tzari egin ziezaiokeen keinu. «Kuartzo»a irakurri eta denboran pentsatuko zuten askok eta hiztegiari halako soslai transzendentala emango lioke gainera. «Saretu» berehala saihestekoa zen, doktore gazteak omenalditzat interpretatzen zezakeelako. «Pareta» bizkaitarrak nazkatzeko —gogaitzeko, esan nahi baita— saiakera moduan ulertzeko arriskuan zegoen. «Baina»k irakurketa psikoanalistetarako bidea irekitzen zuen —berriz ere akordatu zen J.J. Lasarekin—. Bazituen hitz gustukoak, jakina; «hasperen» esaterako edo «hautsontzi», zeinak iragana ekartzen zion gogora, nahieran ke urdinezko zigarroak erre zitezkeen garaiak alegia. Zigarro kez inguratutako zegoen Abaituak idatzi zuen lehen kontakizuna, oraindik kariño apur batekin gogoratzen zuena. Han erabili zuen lehen hitza baliatu zezakeela ere pentsatu zuen: «Ez». Ezin esan esanguratsua ez zenik baina dudarik gabe, gehiegizkoa iruditzen zitzaion hiztegi bat «ez» hitzarekin hasia. Ez: Ezezko esaldi baten ordain den adizlaguna. Eskarmentuak azala gogortu zion baina ez zen ziniko totala izatera ailegatu. Oraindik lehenago argitaratu zuen poema liburura jotzea pentsatu zuen gero, non «ni» zen erabili zuen lehen hitza. Gehiegizkoa hori ere, zalantzarik ez.

Bazirudien gustua hartzen hasia zitzaiola kontuari, hitz batetik bestera jauzi egite hori hiztegi bat hasteko hitz perfektuaren bila. Proiektuak zuen erokeria eta are adar jotze traza ikusita, akademiaren arauen kontra zihonan

hitzen batekin hastera bururatu zitzaion. Bazituen hainbat gogoko: taferna, entresa, jistikulatu, xokolate, elgar, eskenatoki, karizia, ideki... Elgar-ekin has zitekeen, pentsatu zuen Abaituak, besterik ez bazen haren musika klasi-koarekiko zaletasunaren omenez, nahiz eta ez zen konpositore ingelesa hain justu haren gustukoena. Akademia zirikatzearenak kitzikatzen zuen, zergatik uka; izan ere, urte batzuez gero gogaitu baino ez zuen egiten Akademiak, nekeza egiten zitzaion haren hartzen ziren erabaki gehienekin akort egotea. Geroz eta urrunago sentitzen zen, eta ez zatekeen mendeku txiki eskasa inkorrekzio batekin hastera hiztegia. Gaztetako kontuak izaten omen dira inkorrekzioak, baina Abaituaren kasuan gehiago ziren zahartzarokoak. Adar jotzearen ildotik, mailegu berriren bat aukera zezakeen, demagun, «txat», «selfie», «airbag» edo halakoren bat, baina aspaldi zen euskararen purista-garbizaleak zirikatzeari gustua galdu ziona. Haietako ere baketan uztea zela onena sinetsita zegoen. Haietako hor ere ni hemen, pentsatzen zuen, norbera bere bidetik. Garai bateko eztabaida sutsuak gogoan, hatzez hasten zen hitz bat hautatzea zen beste aukera bat, baina, nor gogoratzen zen honezkero katramila haiekin? Egokitu zitzaion behin baino gehiagotan hatzearen eztabaida ondoren jaiotako ikasleei esplikatuko beharra, eta beti sentitu zuen ez zutela deus ere entenditzen. Hatzea erabili edo ez erabiltzeagatik halako kalapitak? Burutik al zeuden ba? Dударik gabe, diskutitzen dugunean euskaldunok dugun jarrera tragikoaren beste adibide bikaina zen, zeinaren arabera letra madarikatu baten gorabeherak hil ala biziko auzi bilakatzen ziren.

Eserita egoteak ez zion beroa sobera apaldu. Izerdi patsetan zela konturatu zuen, ez soilik bizkarraldean, beti lehenik izerditzeko zitzaion gorputzaren partean, baita beso eta bularraldean ere. Alferrikako ahaleginak egiten zituen alkandora gorputzera pega-pega eginda gera ez zedin. Gauzak horrela, altxa eta beste leku freskoagoren batera joatea deliberatu zuen. Bazuen tarte bat Plaza kafetegiraino, baina behialako lekuen bisita birarekin jarraitzeko toki egokia zela pentsatu zuen.

Kontent zen gainera. Bazirudien burua funtzionatzen hasi zitzaioala. Ez zuen oraindik hiztegiaren lehen hitza aukeratu, baina behinik behin, hainbat aukera aztertu zituen eta lehen urrats hura emateak gertuago sentitzen zen. Parkean gora egiten zuen turista uholdetik ihesi, metroaren sarrerarantz egin zuen. Ez zuen gertu, baina edozer gauza mukuratu joango zen autobus bat hartzea baino lehen. Trenean sartu zelarik, jertse bat faltetsi zuen udaran beti gertatzen zitzaion moduan, eta praken atzealdeko sakelara begiratu zuen, zer gerta ere beti eramaten zuen *Frenadol* sobretxo hori konprobatzeko.

Ez zen Plaza kafetegia sobera aldatu. Egurrezko barra luze eta altuak hor zirauen, eta baita Thonet estiloko aulki eta mahaitxoak ere. Horietako batean eseri zen Torres 10 bat eskatu ostean. Ez zuen ahaleginik egin behar izan toki hartan ere Susanarekin bildu ohi zela akordatzeko. Hark esplikatuko zion horiek Thonetek eginiko aulkiak zirela, XIX. mendean diseinatutakoak. Abaituak azaldu zion gero, ordainetan zerbait erakutsi behar izango balio bezala, euskaraz ere bazela kadira erabiltzerik: «Oso gustuko ditut kadira hauek»

esan zion irribarrez. «M'agraden molt aquestes cadires». Luze gabe horietako batekin azaldu zen Susana Coll de Portellen, «per a quan vulguis llegir a la terrassa» esanez.

Doministiku egin zuen, ohi zuen moduan nahiko modu exageratuan. Besso jaso eta baso bat ur eskatu zion barmanari. Alde batera inklinatu eta eskua praken atzealdeko poltsikora eraman ondotik berriro mahai gainean ipini zuen sobretxo. Ondoko aulkiari, kadirari esan nahi baita, begiratu zion pentsakor.